

"Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina, martxa onean Altsasun eta Irurtzunen

Hilabete darama indarrean egitasmo berritzaile honek eta liburuen salmentan izango duen eragina baloratzeko goiz samar bada ere, liburutegi publikoetan egindako mailegu kopuruari erreparatuta dudarik ez dago irakurketa sustatzeko proposamen eraginkorra dena.

Nafarroan, Altsasu eta Irurtzun herrietako biztanleek dute egitasmo honen abantailaz baliatzeko aukera. Herri horietan bertako euskara elkarte, udal liburutegia eta herriko liburu dendan arteko elkarlanak egin du posible egitasmoak aurrera egitea.

Herri bakoitzeko liburutegian eta www.topagunea.org/irakurri webgunean ikusgai dauden 100 liburuetako bat hartu, mailegu zerbitzua baliatuta etxera eraman, irakurri eta itzultitakoan, liburu hori erosi eta beste pertsona bati oparitzeko asmoa izanez gero, fitxa bat beteta deskontu txartela eskuratuko dugu.

Fitxa txartel horrekin %25eko deskontua izango dugu egitasmoan parte hartzen duen liburu dendan. Eroslea euskara elkarte antolatzailearen bazkidea bada deskontua %50ekoa izango da. Azkenik, euskara elkarteko boluntarioak izango dira oparia, eroslearen partez, hartzaileari eramango diotenak. Gustuko irakurketak dakarren plazerra konpartitzea eta horrexek sortzen duen atsegina dira egitasmoaren balore handienak.